

# Ikusgela sortu da, euskarazko ikus-entzunezko pedagogiko libreen ataria

## Bideo pedagogikoak, euskaraz eta libreak

Azalpen bideoetan espezializatutako proiektua da Ikusgela. Sarean euskararen presentzia areagotzeko eta euskarazko Wikipedia osatzeko helburua du. Ikasleei zein landutako gaietan interesa dutenei erakargarria egingo zaien tonu freskoarekin, baita narratiba berrietara egokitutako lengoaia eta baliabideak erabiliz ere. Bideo guztiak, gainera, eduki libreekin osatu dira, eta sortutako materiala ere librea izango da, sarean aritzeko modu baten erakusgarri.

Webgune bat du, baina proiektuaren funtsa ez da edukiontzia; edukia bera baizik. Horregatik, webguneak baino garrantzi handiagoa du Wikipediak eta Youtubeko kanalak; baita eduki hori sare sozialetan zabaldu eta sustatzeko bide berritzaileak aurkitzeak ere. Ikusgelak zubi lana ere egin nahi du: euskara eremu formalean soilik erabiltzen dutenak eraman nahi ditu eremu informalean ere euskarazko edukiak ikustera.

Funtsean, Ikusgelak zubi-lana egin nahi du eremu akademikoaren eta sareko ikus-entzunezkoek ordezkatzten duten kultur kontsumoaren artean. Bestela esanda, ikasle eta irakasleei baliabideak eskaintzeaz gain, hizkuntzaren ikuspegitik nahi du eragin, nerabeak euskarazko edukien kontsumora erakarrit.

Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak koordinatzen du proiektua, Eusko Jaurlaritzak diruz babestu eta Hiru Damatxok ikus-entzunezkoen adarra jartzen du. Hasiera puntua 2019an du, UEU-EWKE Humanitate Digitalen lehenengo ikerketa-beka irabazi zuen "*Esplorazio ikerketa sareko euskarazko ikus-entzunezko eduki pedagogiko libreen sortze prozesurako*" proiektuarekin. Ikerketa egin ondoren 2deon prototipo bat egiteko aukera lortu zuen proiektuak. Horren ostean Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak babesa eman dio ekimenari eta honela jaio da Ikusgela.

## Lehen hiru sailak: filosofia, ekonomia eta euskal literatura

Ikusgelak askotariko gaiak jorratuko ditu, hauek dira lehen hiru sailak:

### 1) Filosofia

Joxe Azurmendi Katedrarekin eta Agora elkartearekin sei filosofia autoreren gaineko bideoak osatuko dira lehen denboraldian. Dagoeneko [hiru aurkeztu dira](#) (Simone de Beauvoir, Hannah Arendt eta Platon). Datozen asteetan beste hiru bideo zabalduko dira. Bideoen ahotsa Klara Badiolak jarri du.

### 2) Ekonomia

Ekonomiako kontzeptuak argi eta simple azaltzen dira bideo-sail honen bidez. Alazne Astorga aktoreak lehen pertsonan azaldu ditu. Bideo sail honen formatua youtuber estilokoa da. Eduki aholkularitzan Jakinbai elkarteko kideak eta Lanbide Heziketako irakasleak izan dira. Ekonomia lantzeko interesa duen ororentzat badira ere, saiakera berezia egin da Lanbide Heziketan euskarazko materialgintzan dagoen hutsuneari erantzuteko. Gaur argitaratuko da sail honetako lehen [bideoa](#), BEZa landuko duena, ondoren etorriko dira inflazioa, bideragarritasun plana, enpresa motak eta abarren gaineko bideo-azalpenak.

### 3) Euskal Literatura

Elbira Zipitriaren (Ira) pertsonaia animatua baliatuta, euskal literaturaren historiako egile eta mugarri nagusiak azalduko ditu sail honek. Bideoek animazioa eta collage teknikak uztartzen dituzte, ikus-entzunezko pedagogiko bezain entretenigarriak dira: egungo erreferentziekin osatuta, eta neurrian bada ere, umoreari tokia eginez. Gainontzean oso laua eta urrunekoa izan daitekeen jakintza eremu bat modu ulergarri eta atseginagora eramateko bokazioa du, irakasleei gaiak kokatzeko baliabide berritzaile bat eskainiz. Bernat Etxepare, Axular, Gabriel Aresti eta Mariasun Landa azalduko dira, adibidez, zortzi bideoko sail honetan. Gidoilari Ane Garcia eta Lander Arretxea aritu dira, ahotsa Nerea Arriolak jarri du, animazioak Unai Gaztelumendirenak dira, lan pedagogikoa Alaitz Urkizuk landu du eta bideoek Hiru Damatxoren zigilua dute.

Ez gara hor geratuko. Ikasturte honetan bertan sail berriak izango ditugu. Zientziaren historia edota ingurumenaren gainekoak, esaterako. Asmoa, astero-astero bideo bat argitaratzea da.

#### Prentsaurrekoko kideak:

- Miren Dobaran (Hizkuntza Politikarako Sailburuordea, Eusko Jaurlaritza).
- Estibaliz Alkorta (Euskara Sustatzeko zuzendaria, Eusko Jaurlaritza).
- Luistxo Fernandez (Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko lehendakaria).
- Ander Bolibar (Ikusgela, Euskal Wikilarien Kultura Elkartea).
- Iñaki Zabaleta (Joxe Azurmendi Katedra, EHU).

#### Ikusgela sarean:

- ☞ Webgunea [www.ikusgela.eus](http://www.ikusgela.eus)
- ☞ Youtube <https://www.youtube.com/channel/UCDwb7dGUD5tnsfhgEOgdIGA>
- ☞ Twitter <https://twitter.com/ikusgela>
- ☞ Instagram <https://www.instagram.com/ikusgela/>
- ☞ Telegram [t.me/ikusgela](https://t.me/ikusgela)
- ☞ Facebook <https://www.facebook.com/ikusgela>
- ☞ Wikipedia <https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Hezkuntza/Ikusgela>

#### Promo bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=0tBd2sP7krw>

#### Kontaktua:

Ander Bolibar Zabala  
609930440  
[ikusgela@wikimedia.eus](mailto:ikusgela@wikimedia.eus)

